

**Akitaniera, Euskara Batu Zaharra  
eta euskararen biziraupena.  
Zer gertatu zen «mende ilunetan»?<sup>1</sup>**  
*Aquitanian, Old Common Basque and the survival  
of the Basque language:  
What happened during the «dark ages»?*

Mikel Martínez Areta\*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

**ABSTRACT:** Ever since Mitxelena (1981) proposed that all Basque dialects had their starting point in an *éuscaro* to be set in the 5<sup>th</sup>-6<sup>th</sup> centuries, many contributions have been made aiming at the reconstruction of its linguistic traits. In this paper, starting from Hualde's (2015: 131) well-known diagram, the external aspects of the problem will be discussed. By means of correlations between historical and linguistic elements, an attempt will be made to link Old Common Basque and Western Basque to historical processes. The relationship between Old Common Basque and Aquitanian will also be taken up.

**KEYWORDS:** Aquitanian; Old Common Basque; *rusticani*; Western Basque; necropolis of Aldaieta; Paleo-Christian Church of Dulantzi.

**LABURPENA:** Mitxelenak (1981) euskalki guztiak abiapuntua v.-vi. mendeetan kokatu beharreko éuscaro batean zutela proposatu zuenetik, oparoa izan da EBZ honen ezaugarriak berreraiki-

---

<sup>1</sup> Lan hau bi proiekturen babespean egin da: (1) *Monumenta Linguae Vasconum 6: avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca (MLV6)* [= PID2020-118445GB-I00], Blanca Urgellek zuzendua eta Espainiako Gobernuako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak babestua; eta (2) *Hizkuntzalaritza Diakronikoa, Tipologia eta Euskararen Historia* [= IT1534-22], Iván Igartuak zuzendua eta Eusko Jaurlaritzak babestua. Bihoazkie nire eskerrak Eduardo Orduñari, Joseba Abaituari eta Emiliana Ramosi ideia-trukaketagatik, eta Rubén Santosi mapak egiteagatik.

\* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Mikel Martínez Areta. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitateen ibilbidea, 5 (01006 Gasteiz). – [josemiguel.martinez@ehu.eus](mailto:josemiguel.martinez@ehu.eus) – <https://orcid.org/0000-0002-9935-0363>

**Nola aipatu / How to cite:** Martínez Areta, Mikel (2023). «Akitaniera, Euskara Batu Zaharra eta euskararen biziraupena. Zer gertatu zen «mende ilunetan»?», *ASJU*, 57 (1-2), 671-689. (<https://doi.org/10.1387/asju.25971>).

Jasoa/Received: 2022-09-17; Onartua/Accepted: 2022-12-16.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomerziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

*tzen jardun duten ekarpenak. Lan honetan, Hualderen (2015: 131) diagrama ezagunetik abiatuz, auzi honen kanpoko aspektuei ekingo zaie. Elementu historikoen eta linguistikoen korrelazioen bidez, EBZa eta Mendebaldeko Euskara prozesu historikoekiko loturak ezartzeko saio bat egingo da. EBZa eta akitanieraren arteko erlazioa ere eztabaidatuko da.*

*HITZ GAKOAK: akitaniera; EBZa; rusticani; Mendebaldeko Euskara; Aldaietako nekropolia; Dulantziko eliza paleokristaua.*

## 1. Sarrera. Mitxelena (1981)-etik Hualde (2015)-era<sup>2</sup>

Mitxelenak 1981ean «Lengua común y dialectos vascos» idatzi arte, euskalaritzan ez zegoen ideia argirik euskalkiek ezinbestez amankomunean izan behar zuten proiektzioa zein izan zitekeen galdekizunari aurre egiteko. Onartzen zena Arturo Campiónengandik abiatzen zen planteamendu bat zen, zeinaren arabera euskalkiak Antzinatean jadanik eratuta zeuden, eta Ptolomeoren tribuei zegozkien: bizkaiera karistioen lurraldeari, gipuzkera varduloenari, goi-nafarrera baskoienari. Eskema honek bizirik dirau gaur egun zenbait historiagileren lanetan, eta oro har sakoneko pentsamoldea izan zen xx. mendeko euskalaritzan. Bestalde, Luchaire eta Sacazeren lanak euskalarien artean zabaldu zirenean, datu akitaniarren ezagutzak paradoxa bat ekarri zuen, inplikatzeko baitzuen euskara Antzinateko iturrien arabera indartsuen izan zen lurraldeetan iraungi zela, eta besteetan, aldiz, biziraun. Paradoxa honen kudeaketa eta interpretazioa izan da, hein batean, euskalaren kanpoko historiaren ikerketaren hari gidaria.


Mitxelenak (1981) argudiatu zuen euskalkiak beren artean antzekoegiak zirela hain zaharrak izateko. Haren arabera, v. eta vi. mendeetan, lehenik Erromatar Inperioaren eroraldiaren eta ondoren bisigodoen eta frankoen aurkako gatazken karietara, Pirinio mendebaldeko aldirietan aspaldiko harreman jentilizioen ahultze bat gauzatu eta ordena berri bat eratu zen, eremu linguistikoan dialekto paleo-euskaldun ezberdinen nolabaiteko *brassage* bat sustatu zuena. *Éuscaro* izendatu zuen aitzinhizkuntza hau euskalki guztien arbasoa litzateke. Lakarrak (2011: 165) adierazi duenez, narratiba honi garaietan pil-pilean zeuden Barbero eta Vigilen teorien kutsu nabarmena dario. Hala ere, gertakari historikoak bestelakoak izan zitezkeen arren, § 3-n ikusiko denez hurrengo hamarkadetako aurkikuntza arkeologikoei Mitxelenak EBZari esleituriko kronologiaren alde egiten dute.

Harez geroztik —bereziki 90eko hamarkadatik, Joseba Lakarraren gidaritzapean garaturiko hizkuntzalaritza historikoaren esparruan—,<sup>3</sup> denok gaude ados EBZa mende ilunetan, 300. eta 900. urteen arteko aldiren batean, kokatu beharreko entitate linguistiko bat dela, zeinaren gainean euskalkien arteko erkaketaren edozein emaitza proiektatu behar dugun. Honek ahalbidetzen digu aniztasun dialektalaren dimentsioak koordinada kronologiko zentzuzkoetan ezartzea eta maileguen kronologiak eta zabalerak logikaz ulertzea. Argitu beharrekoa zera da: EBZa zehazki zer zen (adib. soziolinguistikoki), zein erakunde politiko edo erlijiozkorekin lot litekeen, zein zen haren erlazioa akitanierarekin, etab. Orain urte batzuk, neronek zalantza hauek

<sup>2</sup> Laburdurak: EBZ = Euskara Batu Zaharra; GI = Goi Inperioa; Goi Erdi Aroa = GEA; HG = Haute-Garonne; HP = Hautes-Pyrénées; LC = *Lugdunum Convenarum* (= egungo Saint-Bertrand-de-Comminges); ME1.estr. (2. mapan) = Mendebaldeko Euskalaren 1. estratua; PI = pertsona-izen.

<sup>3</sup> Lakarrak (2011) hain zuzen eman zion *Euskara Batu Zaharra* izendapena Mitxelenaren *éuscaroari*.

gogoan bor-bor neuzkala, oso argigarria iruditu zitzaidan «Dialektologia dinamikoa» izenburuko lanean dagoen diagrama hau:



### 1. irudia

Akitanieraren bilakaera diakronikoa (Hualde 2015: 131)

Lan honetan, euskararen barneko historia albo batera utzi, eta azaldu gogo dut nola interpretatzen dudan nik 2. fasetik 3.erako igarotzea, gehi EBZetik Mendebaldeko Euskararako, kanpoko historiaren ikuspegitik. Helburua zera izango da: gaur dauzkagun erregistro orotako puzzlearen pieza guztiak —epigrafiko, linguistiko, arkeologiko, historiografikoak— uztartzen ahalegintzea. § 2 atalean, akitania eta EBZa zein euskara historikoaren arteko antzekotasunak nola azaldu eta zeren seinale diren hartuko dut hizpide. § 3 atalean, EBZa eta ME1.estr.a zein garaitakoak diratekeen eta zein gertakari historikorekin korrelaziona daitezkeen aztertuko dut, dagoeneko Abaitua, Martínez Areta & Ramos (2022)-n aurkezturiko hipotesi bat sintetizatuz. § 4 atala Abaitua, Martínez Areta & Ramos (2022)-ren nolabaiteko «prekuela» bat da, bertan EBZaren hiztunak nondik zetozkeen galdekizunari heltzen baitiot. Azken atalean, euskararen biziraupenaren auzia «berbisitatu» egingo dut, akitania eta EBZaren arteko proposaturiko erlazioaren argitan.

### 2. Euskararen eta akitanieraren arteko antzekotasunak nola interpretatu

Hualderen (2015) diagraman euskalari guztioi senak iradokitzen diguna irudikatzen da, alegia akitania conveno<sup>4</sup> eta euskara historikoaren arteko lotura zuzen bat. Antzekotasunak ezagunak dira. Zenbait aipatzearren:

<sup>4</sup> *Conveno* terminoaren zentzu zabala erabiliko dut lan honetan. Izan ere, tarteka inguruko *civitate*-tako beste PI bakan batzuk ere muga hauen barnean sartuko ditut. Uste dut hau erraztasunaren mesedetan egitea justifikatuta dagoela bi arrazoiengatik: (1) oro har *Convenae* akitaniar lekukoaren erdigune geografikoa da, eta (2) § 5 atalean ikusiko denez badago arrazoirik pentsatzeko Behe Inperioan euskararen eremua lurralde convenora mugatuz joan zela.

- (i) *Andere, Cison, Sembe-, Seni-* bezalako apelatiboak zeharo ezagun suertatzen zaizkio gaur egungo edozein euskalduni.<sup>5</sup> Antzeko taxuko antroponimo eta teonimoak Nafarroan, Aragoiko Cinco Villasen, Araban edo Soriako Lur Garaietan ere aurkitu dira, baina modu askoz sakabanatuago batean, eta, azaltzen diren eskualdeetan, beste filiazio batzuetako PI indigenekin askoz tartekatuago daude. Hau ikusita, ez du ematen euskara historikoa eta akitaniera convenoaren arteko elkarketa berezia kopuru epigrafikoaren parametroari soilik zor zaionik.
- (ii) *Nescatoren* kasuan, deigarria da euskara historikoaren oinarri + atzizki konbinazioa Saléchan-eko inskripzioan jada eratua dugula akitaniera convenoan.

Elementu hauei nik beste biok gehituko nizkieke:

- (iii) Badira *Convenae* edo *Convenaetik* hurbileko toponimo deantroponimiko batzuk, oinarrian euskal apelatibo argia dutenak. Hauetarik, paralelo epigrafikoa dutenak aspaldi ohartarazi dira,<sup>6</sup> hala nola *Séméac* (←*Sembe*, ~ eusk. *seme*, Tarbesetik hurbil, *Tarbellien* eremuan beraz), *Sentenac* (←*Seni-tenn-*, ~ eusk. *sehi*, bi Ariège-en, *Conсорannien* eremuan) eta *Estenòs* (←*Esten-co*, ~ eusk. *ezten*, HGko Saint-Gaudens-en, *Convenaeeen* eremuan). Nik multzo honetan paralelo epigrafikorik ez duten eta dakidala ohartarazi ez diren *Convenaeko* beste bi sartuko nituzke:<sup>7</sup> *Samuran* (~ eusk. *samur*, Barousse bailaran) eta *Jaunac* (~ eusk. *jaun*, HPn, LCen albo-alboan). Egia da ez direla Erdi Arora arte lekukotzen,<sup>8</sup> baina atzizkiek berek ematen diete GIko kronologia bat, *-òs*, *-an* eta *-ac* bezalako atzizkiak PI akitaniar, latindar edo galoeekin baino ez baitira konbinatzen. Marka bedi *Estenòs*, *Samuran* eta *Jaunac* LCen inguru hertsian daudela, oso hurbil beren artean, eta foku epigrafiko sarriretako baten erdi-erdian. Lekuko hauek guztiak ez daude parametro epigrafikoaren menpe, eta zaila da aipatu direnetatik urrun paralelorik aurkitzea.<sup>9</sup>
- (iv) Bada euskalki historikoetan modu ezberdinetan desagite bidean dagoen baina EBZari zalantzarik gabe eslei dakiokkeen ezaugarri gramatikal bat, ene iritziz akitaniera convenoan jada indarrean zegoena: Linschmann-Aresti legea. Alegia, Garona Garaian honako PIok topatzen ditugu: *Ennebox* (Montsérié), *Enne-bon* (LC), *Neure-nl* (Saint-Lizier), *Neure-se-ni* (dat., Arrien), *Neur-i* (gen., Anla), *Neuf* (Montsérié). *Enne-* eusk. *enerekin* erkatu da aspaldi, eta *Neure-* eusk. *neurerekin* lotzearen alde ere azaldu zen Mitxe-

<sup>5</sup> Euskal «soinuko» zenbait izen akitaniarren euskaltasunaren gaineko Laffiteren eszeptizismoari Mitxelena (1954: 411) osteratu zionez: «[p]ero nombres como aquit. *Andere*, *Nescato* no suenan simplemente a vasco, sino que «son» vasco a secas».

<sup>6</sup> Ikus Gorrochategui (1984), hurrenez hurreneko sarreretan.

<sup>7</sup> Martínez Areta (2022)-n proposatu dut.

<sup>8</sup> Ikus Grosclaude & Le Nail (2000), hurrenez hurreneko sarreretan.

<sup>9</sup> Izan litekeen kasu isolatu bat Pauetik 35 km iparraldera dagoen *Arzacq(-Arraziguet)* komunan aurkitu dut, Rohlfsi jarraikiz (*apud* Gorrochategui 1984: 221) akit. *Hars-* eta eusk. *hartzekin* erlazionatzen badugu.

lena (*apud* Gorrochategui 1984: 242-243).<sup>10</sup> Bada, akitanieraz *eNe* eta *neure* jada baldin baziren, txandaketa eragin zuen baldintzapean sintaktikoa aurretiaz sortua delako izango da.

Antzekotasun hain nabarmen hauek interpretatzeko, *a priori* bi azalbide kontzebitu ahal ditugu, Hualderen goragoko 1. irudiaren bi interpretazio ezberdini dagozkienak:

- a) Antzekotasuna neurri batean espejismo bat da, *Convenaeko* ohitura epigrafiko eskergak elementu paleoeuskaldunaren gainordezkapena eragiten duelako. Nafarroan antzeko ohitura epigrafikoa bagenu, baskoien eremua *Convena* bezain euskalduna zela egiaztatuko genuke. Hau honela bada, 1. irudiko akitaniera zentzu zabalean ulertu beharko genuke: *Conсорannen* lurraldetik guxtienez baskoienera zabaltzen zen hizkuntza bat zen, eta biziraun zuena «akitania nafarra» izan zen.
- b) Akitaniako mendebaldean zurigune epigrafiko zabalak ditugun arren, akitaniera *convena* eta euskararen arteko antzekotasunak handiegiak dira soilik ohitura epigrafikoaren parametroaren bidez azaldu ahal izateko. Elkarren antz hain handia badute, euskara *Convenaetik* datorrelako da. Kasu honetan, 1. irudiko akitaniera zentzu hertsian ulertu eta Behe Inperioan nolabaiteko populazio-mugimendu bat gertatu zela onartu beharko genuke.

Galdekizuna, lan honetan, ez da euskararen GIko lekuko nafarrak noiztik dauden Nafarroan (Neolitikotik, cromlechen garaitik?, gatazka ponpeio-sertoriarretik?), beste hau baizik: Nafarroan GIan hitz egiten zen paleoeuskara, EBZaren aurrekoa al da? Esango nuke Hualde (2015: 130) baiezkoko dagoela, diolarik: «Hau da, erromatarren garaiko akitaniarren alaben artean, batek bakarrik iraun zuen bizirik, EBZ izenarekin ezagutzen dugunak», (a)-ren formulazio bat, nolabait. Nire iritzia, ordea, (b)-ren aldekoa da. Goragoko (i) eta (iii) antzekotasunen iruzkinetan (b)-ren aldeko argudio batzuk eman ditut dagoeneko, baina arrazoi nagusia honakoa da: (a)-ren logika eza. Nafarroaren ondorengo egoera linguistikoaz une batez ahazten bagara, ez dauka logikarik lurralde berean erromanizazioak zeltiberieraren eta iberieraren desagertzea eragiteak, baina euskararena ez. Aitzitik, logikoagoa da pentsatzea baskoien lurralde osoaren erromanizazioak aldi berean hiru hizkuntzen asimilazio linguistikoa eragin zuela, eta erabateko latindartze hori garai erlatiboki goiztiar batean gertatu zela, K.o. II. menderako menturaz.

Nire datuen arabera,<sup>11</sup> Nafarroako epigrafian ageri diren ezaugarri euskaldun ziur ia guztiak K.o. I. mendekoak dira.<sup>12</sup> K.o. II. mendean, ekoizpen epigrafikoak nabar-

<sup>10</sup> Gorrochategui bera zuhur azaldu zen azken baliokidetasunaren aurrean, *\*ni-haur-e* aitzinforma onartu behar baitugu. Ene iritziz, Gorrochateguiaren zuhurtzia gehiegizkoa da, *neure* EBZeko forma baita (euskalki guztiek dute, XVI. mendeko euskararen). Ohar bedi iparraldeko euskalkietan, zeinetan gainerako kasuetan abs. *ni-haur*, erg. *ni-haur-k*, dat. *ni-haur-i* formak garatu gabe mantendu diren, genitiboa ordea *neure* dela (genitiboaren forma berria duen zub. *nihaur-en* berrikuntza bat da).

<sup>11</sup> Kontsultaturiko bibliografia osoa ezin dut zehaztu, baina atal honetan aipaturiko datu guztiak <http://eda-bea.es/> datu-basean ikusgai daude.

<sup>12</sup> Teonimoen artean, Uxueko *Lacubegi* bakarrik kokatu da II. mendean (bigarren erdian). Dena dela, haren osagaien filiazioa ez da ziurra, eta bestalde hiru dedikatzaileetako bi PI grekoko libertoak

men behera egiten duen arren, epigrafia nafarrak gizarte askoz latindartuago bat islatzen du, zeinean erromatarraurreko etnizitatearen adierazle ia guztiak irauungi diren.<sup>13</sup> Bestalde, Andrearriagako *Belteso-* albo batera utzita, Nafarroako lekuko epigrafiko guztiak teonimo edota antroponimo zelta eta iberiarrekin tartekaturik azaltzen zaizkigu. Hau foku epigrafiko guztietan gertatzen da: (i) Lizarrerriko *Andelos* eta *Curnonium civitas* eta haien inguruko *territoriume*an (zeinetan teonimoa indigena paleouskalduna den, antroponimia ordea zelta eta iberiarra), (ii) Zidacos eta Aragón ibaien ibaiarteko *Cara* eta Santakriz Eslaba eta inguruko *territoriume*an (Lergako paleouskaldunekin batera, *Agursenio*, *Gurtunbasis*, *Thurscando* iberiarrak eta *Araca*, *Pere-musta* indoeuroparrak ditugu), eta (iii) Cinco Villasen (erka bitez Valpalmaseko *Serhuhoris* paleouskalduna, *Geseladen* iberiarra, eta Sofuenteseko *Bucco* zelta). *Convena*eko bailaretan ez bezala, ez dago inon, baskoien eremuan, foku epigrafiko eskusiboki paleouskaldunik. Latina zabaldu zenean, zergatik utzi behar zuten bertan behera zeltiberieraren eta iberieraren hiztunek beren hizkuntza, baina eskualde bere-tako paleouskaldunek ordea berenari eutsi?

Honi osteratu lekiok euskarak Plinioren *Vasconum saltusean* (Irun inguruan) eta Pirinioetako bailaretan irauin ahal izan zuela, haietan transmititu diren datu apurrak eskusiboki paleouskaldunak baitira: Andrearriagako *Belteso-*, Pl. (etab.) *Oiarso-* (eta aldaerak), Ptol. *Itourissa* (*Eturissensis origo* marka batean), *Heraucorritsebe* teonimoa Pirinioren beste aldean.<sup>14</sup> Alabaina, eskualde hau oso urriki jendeztatuta zegoen, eta

---

ditugu. Lizarrerriko teonimo guztiak —zeinetarik batzuek *h* edota *-(h)e* datibo akitaniarra agertzen duten— K.o. I. mendekoak dira. Euskal tratamendu fonetikoa agertzen duen *Andeloko Calpurnia Urchatell-i* ere K.o. I. mendean kokatzen da, eta orobat Muetzeko *Aemilio Or[d]junets-i* —ez bada aurreko mendearen amaieran— *Legio II Augustako* beteranoa baita. Euskal filiazioko gainerako Plak (*Belteso-*, *Abisunso-*, Lergakoak...) eta *h* agertzen dutenak (Lergakoak, Tafallako *Thurscando*, Valpalmaseko *Serhuhoris*, Sofuenteseko *D[u]sunharis*) ere K.o. I. mendean kokatu beharrekoak dira, inskripzioen formularen eta beste faktore batzuen arabera. Salbuespena Urbiolako *Edsuri* izan liteke (euskalduna bada), *DM* formula agertzen baitu.

<sup>13</sup> Nafarroako lerro varduloko PI indoeuropar batzuk *D(is) M(anibus)* formula berankorxeagoa daukaten inskripzioetan agertzen dira, hala nola Gastiaingo *An(n)ia Buturra Viriati filia* eta *Iunia Ambata Viro[ni] filia*, Marañoñeko *Doitena Ambati Celti filia*, eta beste zenbait. Hala ere, antroponimia jasotako etnizitatearen adierazle izan ohi den arren, PI baten filiazioak ez du beti zertan unean uneko hizkuntza islatu. Gizabanako hauen garaian (II. mendea?), latindartze prozesua oso aurreratuta zegoeken. Hortik aitzinera begira, argigarria da baskoien lurraldean sakabanaturik eta egitura mononimikoa eta beste ezaugarri berankor batzuk agertzeagatik printzipioz III. eta IV. mendeetan kokatu beharreko 21 Plak erakusten dituen Cantón Serranok (2009: 442-443) egindako taula. 18 eztabaidarik gabe (greko-) latindarrak dira. Gainerako 3etarik, Javierreko *Citastelule* iberiartzat jo izan da inoiz, baina ziurra dirudien osagai bakarra *-ulus/a* atzizki latindarra da (nominatiboan *-a* espero genukeen arren). Eduardo Orduñak eta Noemí Moncunill-ek diostate haien ustez ez dela PI iberiarra. Sofuenteseko *Nar[u?]/[ng?]/eniri* dagokionez, tradizionalki Lergako *Narhun-ges*-ekin eta Montsérieko *Narhon-s*-ekin taldekatu bada ere, azken editoreek «[I]a presencia de una interpunción al final de lín. 2 es clara» kategorikoki baieztatu eta *[Se]renus Nar[cissi filius?]* / *[Tyc]heni uxor(i)* edo horren antzeko zerbaitekin hobesten dute (ikus Jordán & alii 2010: 224). Marañoñeko *An(a)* ustez zelta geratzen zaigu, baina honelako sekuentzia hain arrunt bat latindar izendegira aise asimilatuta ahal izan zen *Lallnamez*at jo daiteke.

<sup>14</sup> Izkueko aldareko *Itacurrinne* teonimoa eta *Val(eri)us Badan(us?) Abisunsonis* dedikatzailea ere aintzat harturik, Iruñeko arro osoa sar genezake planteamendu berean. Ohar bedi, baina, Izkueko epigrafeko formularen *pro reditu* dela botoaren zioa. Bestalde, hala *DM* formuladun hilobi-epigrafiak, bere urrian, nola Gazteluko Plazan agertu diren —eta tipologiaren arabera datatu ahal diren— zeramikazko pusketan *post cocturam* grabaturiko jabetza-marka ugariak (ikus Unzu & Ozcáriz 2009) gizarte erromatartu eta latindartu bat islatzen dute, II. mende amaierako eta III. mendeko *Pompeion*.

hartan ez zegoen ez *civitas*ik ez lurraldearen gune artikulatzailerik. Posibilitate gisa, ezin daiteke bazter euskararen txingar batzuek bertan iraun eta EBZarekin bat egin izana.<sup>15</sup> Baina, ikusiko dugunez, bideragarriena da pentsatzea EBZa beste nonbaitek etorri zela, eta hala bada ez dago txingar hauen biziraupena onartu beharrik. Fun-tsezkoa da honakoa kontuan hartzea: erromatarraurreko hizkuntza baten biziraupena gertakari zeharo ezohikoa da, azaldu ahal izateko arrazoi boteretsu bat —beste inon azaltzen ez den faktore bat— bilatzera behartzen gaituena.

### 3. Nortzuk ziren Euskara Batu Zaharraren hiztunak?

Hualdek iv.-vi. mendeak esleitzen dizkio EBZari. Hau Mitxelenak (1981) proposatu zuen kronologia bera da, aurretik mende bat gehiturik. Ezin egokiago derit-zat Hualderen urkila kronologiko honi. Hala ere, Hualdek (2015: 129) EBZaren zabaltzea Iruñeko Erresumaren hedapenarekin lotzen du, baita gehitu ere zabaltze hau «familia bereko beste dialektoen eta beharbada beste hizkuntza batzuen kalte-tan» gauzatuko zela. Hau azalbide oso zabaldua da, baina nire ustez zenbait arazo ditu.

Hasteko, Iruñeko Erresuma ez da mamitzen ix. mendera arte. Behin sortuta ere, erresumak ez du Araba eta Bizkaiko lurraldeetan politika esku-hartzailerik bultzatzen Dinastia Ximenotarrera arte (905etik aurrera). Dena dela, EBZaren mutur berankorrena hartuta eta Iruñeko Erresumaren eraginaren hasiera 800ean ezarrita ere, gutxie-nz bi mende linbo batean geratuko litzaizkiguke.

Bigarrenik, Hualdek *koine* terminoa ez darabilen arren, planteamendu honen aldekoek argudiatu ohi dute GEAn zabaldu zena Iruñeko Erresumak bultzaturiko koine bat dela. Haatik, ustezko koineizazio batek ez luke azalduko euskalkien Erdi Aroko sorrera bat. Koineak beste dialekto batzuen gainean zabaltzen dira, bi maila eratuz: administrazioaren bidez zabaltzen dena (prestigiosko testuinguruetan erabili-ko dena); eta koinearen aurreko dialektoa (testuinguru etxetiarragoetan). Lehenak eremua irabaz dezake bigarrenaren kaltetan, are desagerrarazteraino edo substratu-kutsu batera murrizteraino, baina koine baten azpian dautzan dialektoak koinea bera baino lehenagokoak izaten dira. Koine batetik ez da, berez, aniztasun dialektalik era-tortzen. Gure kasuan, EBZa Iruñeko Erresumarekin zabalduko koine bat zela pos-tulatzeak behartuko gintuzke onartzera Mendebaldeko Euskara EBZaren zabaltzearen aurreko paleodialekto euskaloide baten nolabaiteko jarraipena dela, eta honek berriro ere Campiñonen aspaldiko planteamendura igorriko gintuzke.

Hirugarrenik, EBZa «familia bereko» beste dialekto batzuen gainean zabaldu ze-lako onarpenak ez dauka inongo funtsik datuetan. Logika orenen arabera, EBZa lu-rralde aurretiaz latindartu baten gainean zabaldu zen mendebalderantz. Latina nagu-situ aurretik zegokeen hizkuntzaz den bezainbatean, hala Arabako epigrafia oparoak nola autore eta idazki greko-latindarrek transmitituriko toponimoek *facies* linguistiko

<sup>15</sup> Honen alde mintza lekiguke, *a priori*, K.o. i.-ii. mendeetan lekukoturiko *Oiarso*- (→*Oiartzun*) eta Pl. *Ilu(m)beritani* (→*Irunberri*, *Lumbier*) toponimo euskaldunen biziraupena. Alabaina, toponimoak *realia* iraunkorrak izaten dira, eta lurralde batean denboran zehar hitz egiten diren hizkuntza ezberdinetan gaindi iraun dezakete, jatorrizko formari erlatiboki ondo eutsiz. Erka bitez inguruko Ptol. *Gébala* → *Gebara*, *Cara* (epigrafikoki lekukotua) → *Santacara* edota Ptol. *Iákka* → *Jaca*.

argiro hispano-zelta bat erakusten dute, oinarrien filiazioan ez ezik, baita atzizkitzean eta euskal substratu fonetikorik ezean ere.<sup>16</sup>

Abaitua, Martínez Areta & Ramos (2022) lanean proposatu dugu EBZaren hiztunak Orosiok *Historiae adversus paganoseko* honako pasartean aipatzen dituen *rusticaniak* direla:

...nam interfectis illis fratribus, qui tutari priuato praesidio Pyrenaei Alpes moliebantur, his barbaris quasi in pretium uictoriae primum praedandi in Palentinis campis licentia data, dehinc supra dicti montis claustrorumque eius cura permissa est remota **rusticanorum** fideli et utili custodia. (Orosio, *AdvPag* 7.40.8-9)

409. urtea da, eta, zenbait zurrumbilo eta usurpazioren artean,<sup>17</sup> Gerontzio generalak erromatarrek Pirinioetako pasaguneetan jagole jarritako «nekazari» (= *rusticani*) fidelak kendu, eta *honoriaci* direlako tropei esleitzen die pasaguneen ardura (luze iraun ez zuen egoera, orde). Orosioren berri honi esker jakin dezakegu Erromak lehenago —noiz ezin zehaztu— pasagune piriniotarrak ez *limitanei* ez *comitatenses* ez ziren milizia irregular batzuen —hots, *rusticanien*— zaintzapean jarriak zituela. Haien eginkizuna bidelapurreria kontrolatzea eta, agian, bidesariak kobratzea zen. *Notitia Dignitatum*aren arabera, garai honetan armada erromatarrek *cohors prima Gallica* dauka *Ueleian* (*NotDign* 42-32) eta *cohors Novempopulana*, *Lapurdon* (*NotDign* 42.19). Bien erdian ez zegoen ezer, eta hau huts nabarmena da, *Iter XXXIV*aren tarte luzea eta batez ere *Hispaniarako* sarbidea —*Summus Pyrenaeusa*— zegoela kontuan harturik. Behe Inperioan beste leku gatazkatsu edo estrategiko batzuetan erabilitako eredu bati jarraikiz, Erromak nekazariz osaturiko ezohiko tropen bidez bete zuen hutsune hau.

Bada, *rusticaniok* zenbait zantzu erakusten dituzte, beraien eta EBZaren arteko erlazio edo are identifikazio bat kontzebigarri egiten dutenak:

- a) Kontuan hartuta jarraikortasun agerikoa dutela hala Hidaziok (*Chr.* 117-150) 443. urtean kokatzen dituen *Aracellitani Bacaudae* arpilatzaileekin, nola VI.-VII. mendeetan autore bisigodoek —antzinako etnonimoaren bererrerabilera erudito bat eginez— *vascones* deritzen (Arabako zein Nafarroako) borrokazale nekazarekin (bai eta mende beretako mota merovingiarreko nekropoliekin ere), nabaria da *gens effera* bat direla (Taxon Zaragozakoak VII. mendean sorturiko esapidean), alegia jende kementsu, oldarkor, gerrazale bat. Antzinate Berankorreko beste herri batzuen kasuan bezala (aldeak alde lonbardiarrak eta bretoiak kasu), izaera grinatsu horri ziur aski halako harrotasun etniko bat gehitzen zitzaion, beren hizkuntzari eusteko eta finen zabaltzeko akuilagarri gertatu zena. Testuinguru honetan ulertu behar dugu, noski, *\*enos-kara* ‘- (gu) mintzatzeko moduan’ endoetnonimoaren sorrera.
- b) Prozesu etnogenetiko hau guztia Mitxelenak (1981) bere *éuscarorako* proposaturiko koordinada espazio-denborazkoekin bat dator.

<sup>16</sup> Karistioen eta varduloen lurraldeetako datuen zerrendaketa xehe eta eguneratua, eta analisia, Abaitua, Martínez Areta & Ramos (2022)-n egin dugu.

<sup>17</sup> Ikus Pozo (2022: 139-141), eta, ondoren datorrenarako, lan bereko III eta IV atal osoak.



- c) *Rusticani* izen «etnikoa» ez izateagatik alderdi linguistikotik arreta gutxi erakarrri badute ere, Orosiok urrezko datu bat ematen digu haiei buruz: 409an Pirinioetako pasaguneetan kokatuta daude. Eta honek, § 4-n ikusiko dugunez, erregistro linguistiko batekin lotzea ahalbidetuko digu.

Sartaldera begira, Abaitua & Unzuetak urraturiko (2011) ildotik, Abaitua, Martinez Areta & Ramos (2022)-n ere argudiatu dugu kausa-ondorio erlazio bat dagoela azken hamarkadotan Araban eta Bizkaian aurkitu diren merovingiar motako nekropolien eta lurraldeotako lekukoek GItik GEArak erakusten duten *facies* linguistikoaren aldaketa erradikalaren artean. Migrazioa eragin zuen gertaera pizgarria frankoek 541ean Zaragozara egindako espedizioa izan liteke. Hau Gregorio Toursekoak (*DLH* 3.29) eta Isidoro Sevillakoak (*HGoth* 41) kontatzen dute, eta *Consularia Caesaraugustana* deritzagun idazkiak Iruñea zeharkatu zuela zehazten du. Pozoren arabera (2022: 200), baliteke Iruñeko arroko hainbat lagun tropa frankoei atxiki izana, eta hauxe izan liteke merovingiar moden kutsaduraren nahiz *inhumation habillée* motako nekropolien eklosioaren abiapuntua. Oso deigarria iruditu zaigu mendebaldeko foku guztietan *inhumation habillée*en aztarnei C14ak ematen dizkien kronologiak data honekin bateragarriak eta beren artean mailakatuak direla antzematea: Dulantzi (ca. 550), Aldaieta (ca. 550), Finaga (ca. 600), Santimamiñe (616-648).<sup>18</sup> Euskararen zabaltzearen lorratza marka lezaketelakoan gaude.

Gainera, 2008-2009etan Dulantzin induskaturiko basilika paleokristauak puzzlearen beste pieza bat eskaini digu, Mendebaldeko Euskararen sorreraren parte askoz argiago ikustatzeko falta zitzaiguna hain zuzen.<sup>19</sup> Garai bertsuko Europako beste basilika batzuk bezala, Dulantzikoa apezpiku-egoitza bati lotua sortu zen (Iruñekoari), eta 550-700 bitartean egon zen indarrean. **Itxura guztien arabera, beraz, adarkadura** eklesiastiko hau ere korrelazionagarria da euskararen sartalderanzko zabaltzearekin. EBZa Iruñeko Diozesiaren sorreraren garaian ernamuindu bazen (ca. 400-550), MEZaren sehaska Dulantziko basilika eta beronen *hinterland* zabala da (Aldaietako nekropolia eta Bagoetako burdinola barne). Hemen, 550-750 bitartean, uste dugu kokatu behar direla mendebaldeko euskara ezaugarritzatzen duten bi urrats (ahulak eta alor lexikora mugatuak izanagatik): (1) ziur aski Dulantziko liturgia espezifikoari lotuak egin ziren alor eklesiastikoko zenbait hautu lexiko (*eguen - Lcc.*, *Lazarg. eguaun, bariku, zapatu, dome(e)ka; berba* vs Iruñeko Diozesiko *ortzegun, ortzirale, larunbat, igande; hitz*), eta (2) dokumentazioa x. mendera arte azaleratzen ez hasi arren mendebalde osoan aldakortasunik ez agertzeagatik fase goiztiar honetan kokatu beharreko hiru garapen lexiko: *berri* > *barri*, *beltz* > *baltz*, *hiri* > *huri*.

#### 4. Nola zuten izena, eta nondik zetozen *rusticaniak*?

Orosioren *rusticaniak* v.-vi. mendeetan izan zuten prozesu etnogenetikoaren barnean, *stock* antroponimikoa elementu aglutinatzaile bat zen. Uste dut beronen berreiriketa-saio bat egin dezakegula, honako iturriok baliatuz eta konbinatuz: toponimo

<sup>18</sup> Datazio hauetarako, indusketa-txostenak Abaitua, Martinez Areta & Ramos (2022)-n zehazten dira. Dulantzin eta Aldaietan data hauek *inhumation habillée*aren estratu goiztiarrenei dagozkie.

<sup>19</sup> Ikus Pozo (2022: 275-278).

deantroponimoak, Erdi Aroko kartularioetako GEAKo diplomak, Akitaniako Giko inskripzioak (zabaltzearen abiapuntua) eta Bizkaiko GEAKo inskripzioak (zabaltzearen iriste-puntuetako bat). Prestatze bidean daukadan lan batean, EBZaren hiztuentzat honako *stocka* proposatzen dut: *Ahoitz*, *Aho(i)ztar*, *Andotz*, *Azter*, *Berhatz*, *BeteLu*, *\*Buruto*, *\*Étulu*, *GardeLe*, *GenduLe*, *HaNa(so)*, *Ho(i)tarr(iezo)*, *\*Ilundo*, *Ilurdo*, *Oro*, *\*Senito*, *Zuri*.<sup>20</sup> Hauetako bakoitza gutxienez bi eskualdetan lekukotuta dago,<sup>21</sup> osorik edo haien konbinazio-elementuetan.<sup>22</sup>

Berreraiketa oro bezala, hau ere proiektzio inperfektu bat da, baina PI hauek EBZaren hiztunen *stock* antroponimikoaren bristada erakusgarria ematen digutela-koan nago. Are gehiago, EBZaren nolabaiteko DNA onomastiko bat osatzen dute, haren hiztunek belaunaldiz belaunaldi transmitituko eta mendealderantz barreiatuko dutena. DNA sekuentzia orok denboraren poderioz mutazioak pairatzen dituen era berean, mendeak aurrera joan ahala *stock* hau ere lausotuz eta berrituz joango da, baina haren PI batzuk sartaldeko mugaldeeraraino iritsiko dira, Bizkaian azken hatsa XI. mendean eman arte.


Antroponimo hauek honako ezaugarriok erakusten dituzte:

1. PI bakoitzak bere historia duen arren, beren orotasunean multzo konpaktua osatzen dute, aipaturiko iturrietan zehar antzeko agerpen-patroia erakusten dutela.
2. Ia denek dute jatorria *Convenaen* edo haren aldirietan (haien artean *Azter*, *GardeLe* eta *GenduLe*, izatez filiazio akitaniarrekoak ez izanagatik ere).
3. Ia denek uzten dute aztarna toponimiko bat —edo gehiago— Pirinioetako pasaguneen oinetan (penintsulako isurialdean), Orosioren pasartetik espero izatekoa denez. Ondorioz, Pirinioetako bailarek PI hauetan oinarritutako toponimo deantroponimikoen dentsitate oso handia erakusten dute, kasualitate hutsetik espero izatekoa baino askoz handiagoa. Foku sarrienak Ultzama / Mediano ibaien arroetan eta Argaren arro garaian ageri dira. Honen irudi dugu 1. mapa.
4. Kronologia konkretu batekoak dira: Giko akitaniar PIak baino berankorragoak dira (*Umme.sahar*, *Abisunso*..., zeinak aztarna toponimikorik utzi gabe desagertzen diren), baina 800tik aurrera zabaltzen diren *Garcia*, *Lope*, *Sancho/a*, *Eneko/Oneka*, *Ximeno/a*, *Otxoa*, etab. baino lehenagokoak. *Rusticantiēn* PIak Iruñeko Diozesiari lotuak ditugu, eta, edo Antzinate Berankorreen desagertzen dira, edo GEAn gainbeheran daude; aldiz, *Garcia*, *Lope*..., Iruñeko Erresumari lotuak sortzen edo —Gaskoiniatik— sartzen dira, eta indartsu ditugu Goi zein Behe Erdi Aroan. Fonetikan ere nabariak dira bi kronologiok: erka bitez esaterako *Genduleren ũ* itxiaren mantentzea (~ gask. *Centolle*) eta *Lope* (< lat. *lŭp-*), euskaran *ũ* > *o* erromantzean ireki ondoren sartu dena (ziurrenik gaskoitik).

<sup>20</sup> Izartxoia dutenak toponimo deantroponimikoetatik soilik erator daitezke.

<sup>21</sup> Hiru eskualdeak direla: Akitania (nagusiki *Convenaen*), Nafarroa (batez ere Pirinioetako pasaguneen oinak), eta mendealde ( = Araba + Bizkaia + Burgos + Errioxa).

<sup>22</sup> Adibidez, *\*Senito* PI errustikantotzat jotzen dut alde batetik *Setoain* (< lekukoturiko *Seitoain*) Esteribar udalerriko herria, bestetik akitaniera convenoan *Seni-* eta *-to* (nahiz elkarrekin ez agertu), ditugulako.



## 1. mapa

*Rusticanien* zenbait PI, Pirinioetako pasaguneen oinetan

5. Denak dira maskulinoak. Hau da, arakatutako dokumentu guztietan, aurkitu ditudan euskal-akitaniar ondareko PI femenino bakarrak *Andere* eta beronen eratorriak dira: *Anderazo*, *Anderkina*, *Andregoto*, *Andregayla*. Hauek, baina, ez dira jatorriz benetako PIak, apelatibo hutsetik sortutako izendapenak baizik. *Aho(i)ztar*, *Berhatz*, \**Senito*..., maskulinoak Akitaniatik datozen era berean, ez dago Euskal Herri osoan ez *Hahan*, ez *Hahanten*, ez *Edunxe*, ez *Hautense*, ez *Silex*, ez Akitaniatik etorritako PI femenino *onomatiko* —*sic*, = ez apelatibo— bakar bat bera ere.<sup>23</sup> Nire interpretazioaren arabera, *split* onomatistiko honek azalbide bat baino ezin dezake izan: lehen belaunaldiko *rusticaniak* gizonak ziren (azken finean, tropa arinak ziren), Nafarroako bailaretara iritsi zirenean bertako emakume aspaldi latindartuekin ezkondu eta apelatibo hutsaren bidez izendatu zituzten, eta azkenik *andere*- hauek onomatizatu ziren. Forster & Renfrewk (2011) erakutsi dute hau ohiko patroia dela munduaren luze-zabalean; alegia, lurralde batean sartzen diren —eta batzuetan metal edo teknologia berri bat ekartzen duten— gizon kementsu bakan batzuk nahikoa

<sup>23</sup> Akitanian ere badira *Andere* (4) eta beronetatik eratorriak (2 *Anderese*, 2 *Anderex(s)o*, *Andrecco* 1 eta *Anderitia* 1), noski, baina erabatekoaren barnean (76 emakume, nire zenbaketaren arabera) gutxiengo bat dira. Euskal Herrian, ordea, *rusticanien* Plei loturiko PI femeninoak oro *Andere*- motakoak dira.

direla hizkuntza ordezte bat eragiteko, Y kromosomaren haplogrupoen eta hizkuntza konkretu batzuen korrelazioek hainbat kasutan egiaztatu dutenez.

Lan honetan proposaturiko zerrendako PI guztiak ezin argudia ditzakedanez, haietako biren historia kontatzeari lotuko natzaio, *stock* osorako proposaturiko jatorri eta ibilbidearen erakusgarri. Bi PIok euskararen zabaltzearen ibilbide osoa egiten dute, Durangaldeko GEAKo idazkun batean elkarrekin batu arte.



### 1. argazkia

Aostar-en hilarria, Momoitioko nekropolitik [Autoreak egindako argazkia]

1. argazkian, Alberto Santanak eta García Caminok 80ko hamarkadan aurkitu zuten hilarri tabular bat dugu, Durangaldeko Garai udalerriko Momoitioko San Joan ermitaren barnean egindako indusketa arkeologikoen kariaz. Multzo bereko epigrafe guztiak bezala, Azkaratek eta García Caminok (1996) argitaratu zuten, eta gaur Bilboko Arkeologi Museoan dago. Inskripzioa areharrizko bloke trapezoidala da, editoreek x. mendean kokatzen dutena. Epigrafea GEAKo eliz latin zabarrean idatzita dago, eta letra-mota nagusiki bisigotiko-mozarabiarretik eratorria da. Honakoa da.

*In dēi n̄(omi)nē ego*  
*Aostarri de*  
*funto + ego fic(i) ista*  
*pētra Hoitarri*  
 {F}ezo

‘Jainkoaren izenean nik<sup>24</sup>  
 Aostar hil-  
 dakoari nik egin nion  
 harri hau, Hoitarri-  
 {F}ezok’

### 2. irudia

Aostar-en hilarriko testua (Azkarate & Garcia Camino 1996: § 60)

<sup>24</sup> Durangaldeko gainerako idazkUNETAN *In dei n(omine) ego* hasierako formula hilari dagokion arren, baidirudi kasu honetan autoreak egilearekin lotu zuela. Horrenbestez, subjektua birritan adierazi zuen.

Hildakoaren eta inskripzioaren egilearen arteko harremana, ezin ziur zehaztu. Nolanahi ere den, GIko epigrafia bizkaitarrean agertzen ziren PI indigenak *Iarus*, *Quno* (Foruaren ingumarian), *Melia* (Lemoan), *Melia* (Zaldun) eta *Aunia* (Laudion) baziren (Ikus Abaitua, Martínez Areta & Ramos 2022: § 3.2), mende ilunen ondoren besteak beste *Aostar*, *Hoitarriezo*, *Gendule*, *Andere* eta *Anterazo* topatzen ditugu, batez ere Durangaldean. PI hauek —eta haiei loturiko hasperena eta *-tar* atzizkia—, «betidanik» al zeuden Bizkaian, ala oraindik orain sartuak dira? Azter ditzagun.

*Aostar* hildakoaren PIaren lekuko gehiago baditugu mendebaldeko iturrietan. Honakoak dira:

- Valpuestako kartularioan, PI honetako zenbait lekuko eta berresle ditugu, denak monasterioaren ekintza-erradioan daudela. Bezerro Gotikoan jasotako formak honakoak dira (ikus Ruiz Asencio *et alii* 2010): *Affostar* (903; Valp9B), *Ahostar* (911, Valp10B), *Afostar* (939; Valp17B), *Haoztar* (956; Valp33B), azkena  $h_2 > h_1$  tarteko.
- *Ahostar*, dudarik gabe PI berbera grafiatzeko saio bat, Durangaldeko Izurtzako Saniurgi ermitako beste hilarri tabular batean ageri den hildakoa da, editoreek x.-xi. mendeetan kokatzen dutena (Ikus Azkarate & García Camino 1996: 71 zk.a).
- *Lupe Ahoçtarreç* (patronimikoa zenbait grafiarekin iritsi zaigu, agiriaren kopia-  
ren arabera).<sup>25</sup> Durangoko kondeek 1053an idatzitako Elorrioko San Agustin Etxebarriaren fundazio-agirian, gizabanako hau dohaintza-emailetako bat da. Idazkia oparoa da PIetan. Denak dira estratu kronologiko berankorrageoeta-koak, baina gizabanako baten aitak, dirudienez, *Ahoztar* izan zuen izena. *Rusticanien* izendegiaren azken distira dugu agerraldi hau.

Grafia eta aldaketa fonetiko askotarikoak gorabehera, *Ahoztar* da jatorrizko forma, beronetan *-tar* atzizkia isola daitekeelarik. Hala Azkarate & García Caminok (1996: 310-311) nola lehenago Gorrochateguik (1984: 126) *Ahoiss-* akitaniarrekin erkatu zuten mendebaldeko PI hau. Bada, Bizkaitik Akitaniara etorritz, *Ahoiss-i* birritan lekukotzen da, biak ala biak patronimiko gisa:<sup>26</sup>

- *Ahoiss-i* (Nux, Barran komunan, Gers-en). Ohar bedi *Convenaetik* urrunxko agertu zela, *Auscien* eskualdean alegia.
- *Ahoiss-i*. Hau galduta omen dago. Erreferentzien arabera, HPko parrokia bateko sakristia batean agertu zen. Gehiago ezin jakin.

Gorrochateguiren arabera, litekeena da PI hau *Aho-* + *-oss(o)-* ~ *-iss(o)* eratorpenetik sortu izana. Beste aukera *Ahoiss-* *s*-izenkitzat jotzea da (baina hala balitz ohiko prozedura 3.etik deklinatzea litzateke). Zernahi gisaz, are nabarmenagoa da beste aspektu hau: oinarria ez ezik, sorrera bera ere badu Akitanian *Ahoztar* PI mendebaldarrak. 3. irudiak *-tar* gabeko eta *-tar*-dun PI akitaniarren lau bikote erakusten ditu, zeinei, *Ahoztar* mendebaldarra gehiturik, bosgarren bikote bat gehi dakiekeen.

<sup>25</sup> Ikus Mañaricúa (2013 [1957]: 115).

<sup>26</sup> Hemendik aurrerako datu akitaniar guztiak erraz aurki daitezke Gorrochategui (1984)-n.

<i>Bon-</i> (Montauban-de-Luchon, HG)	<i>Bontar</i> (Cazaril-Laspènes, HG)
<i>Bibox-</i> (Antignac, HG)	<i>Bihotarr-</i> (Boussens, HG)
<i>Halsco-</i> (Cazaril-Laspènes, HG)	<i>Halscotarr-</i> (Valcabrère, HG)
<i>Semb(us)</i> (Cardeilhac, HG), <i>Xembus</i> (Hagenbach < Ardiège, HG) <sup>27</sup>	<i>Sembetar</i> (Saint-Lizier, Ariège)
<i>Aboiss-</i> (Nux, Gers), <i>Aboiss-</i> (HPko sakristia ezezagun bat) <sup>28</sup>	<i>Ahoztar</i> (Bizkaian eta Valpuestan, x.-xi. mendeetan!)

### 3. irudia

*-tar*-gabeko eta *-tar*-dun PI akitaniarren bikoteak

Antzeman daitekeenez, *Ahoztar* arazorik gabe txerta daiteke akitanieraren eratorpen-prozesuetan. Honek esan nahi du *Aho(i)ss-* (agian < *Aho-* + *-iss(o)-*) + *-tar* uzta-keta ezinbestez Akitanian gauzatu zela, *-tar* atzizkia PIak eratzeko prozedura azkarra eta emankorra zen garaian. *Rusticanien* izendegian, aldiz, eta xi. mendera arte, *Ahoztar* antroponimo ihartua zen (nahiz eta *-(t)ar* atzizkiak euskararen lexiko arruntean emankor iraun).

Momoitioko epigrafean ageri den beste PIa inskripzioaren egilearena da. Editoreen arabera, azken lerroari arretaz begiratuz gero, nabaria da *F*-a intzasio sako-nagoarekin marratua izan dela eta ez duela proportziorik gainerako moduluekin. Badirudi, beraz, beste esku batek trazatu zuela, geroagoko une batean. Haiek *Hoitarriezo* irakurtzen dute. Hala bada, *hapax* antroponimiko bat izango genuke, *Hoitar-* + *-zo* atzizkiak osatua, bien arteko *-ie-* zer den ezin zehaztu dezakegularik. Izan ere, baliteke *-ie-* ez izatea, baina *Hoitar-* zein *-zo* gardenki ikusten dira eta linguistikoki logikoak dira. Paraleloak ditu *-zo* atzizkiak GEAKo iturrietan, hasteko Momoitioko nekropoli bereko beste inskripzio batean, non *Anterazoni* (hots, *Anderazo* datiboan) dugun (ikus Azkarate & García Camino 1996: § 67), berau ere x. mendekoa. Ondoko argudiaketan *Hoitar-* funtsezkoa denez, azpimarratu behar da *I*-aren trazua eta inskripzioaren hasierako *I*-arena (*In dei...*) berdin-berdinak direla. Halaber, *h* nekez jar daiteke zalantzan, Abadiño, Izurtza eta Mendatako inskripzio garaikideetan ageri direnak bezalakoa baita (ikus *ibid.*: 294-296).

Gorrochategui (1984)-ko nomenklaturan begiraturik, editoreek (*ibid.*: 314) bi paralelo hauek aipatzen dituzte oinarriko: *Hontharr-is* (gen.), eta *Hotarr-i(s)* (gen. eta dat.). Bigarrena askoz hobeto dagokio onarturiko irakurketari, *-i-* nolabaiteko «erreperkusio» baten bidez azal daitekeelarik (erka *Momotio* → *Momoitio* bera, *Are-*

<sup>27</sup> PI hau *Sembe*-ren bertsio latindartua da, inondik ere.

<sup>28</sup> 1. mapan irudikatu dudanez, hauetaz landa *Aoiz* toponimo nafarrean dagoke PI hau (xi. mendean *Ahoiz* lekukotzen da), Lafonek iradoki legez (*apud* Gorrochategui 1984: 126). Atzizki deantropnimikorik eza ez da arrunta toponimo antroponimikoetan, baina *Ahoiz* biluziak badu paralelo ziur bat hurbileko *Betelu-n* (< lat. *vet-ellu* 'zahartxo').

*tio* → *Areitio*, *Leketio* → *Lekeitio*, etab.). Gainera, *Honthar-* bakarraren aurrean, *Hotar-* Akitanian hiru inskripzioetan lekukotzen da:

- *Hotarr-i*, *Hotarr-is* (Cazaril-Laspènes, HG). *Bontar* dedikatzailearen aita da. *Hotar* hau Cazaril-Laspènes-eko inskripzio ospetsuan dotore zizelkatua ageri den gizona da. Haren izena birritan azaltzen da, zendu gisa datiboan eta *Bontar-*en patronimiko gisa genitiboan.
- *Hotarr-is* (Barsous, HG).
- *Hotarr-i* (Géry, HG).

Aparteko interesa du PI honen sorreraren analisiak. Gorrochateguiaren (1984: 225) arabera, *Ho-* laburregia da beste ezerekin erkatzeko. Eta gehitzen du: «[p]ossiblement sea una abreviatura de un nombre más largo como *Bihotar*, p. ej.». Izan ere, PI hau behin lekukotzen da:

- *Bihotarr-is* (Boussens, HG).

Gorrochateguik aieru gisa azaltzen duen iradokizun hau sendo baino sendoagoa da, nire iritiz *Francisco* → *Chisco* edota *Karmentxu* → *Mentxu* motako aferesi adierazgarria prozedura emankorra baitzen akitanieraz. *Bihotar-* → *Hotar-* honi nik *Anderese* → *Erese*, *Anderexo* → *Erhexo-* gehituko nizkioke, eta iritzi berekoa den Eduardo Orduñak (k.p.) sorta berean besteak beste *Belexeia* → *Lexeia* eta *Andox-* → *Doxx-* (Hagenbach) sartzen ditu. 4. irudiak aferesi adierazgarri hauek oro biltzen ditu.

<i>Anderese-</i> (Barcugnas, HG)	<i>Erese-</i> (Cazaril-Laspènes, HG)
<i>Anderex(s)o-</i> (Escugna, Aran bailara; Caubous, HG)	<i>Erhexo-</i> (Barsous, HG)
<i>Andox-</i> (7 lekuko; 5 HGn, 2 HPn)	<i>Doxx-</i> (Hagenbach < Ardiège, HG)
<i>Belexeia</i> (Auch, Gers)	<i>Lexeia</i> (Saint-Pé-d'Arde, HG; Cier-de-Rivière; HG)
<i>Bihotarr-</i> (Boussens, HG)	<i>Hotar-</i> (Cazaril-Laspènes; HG; Barsous, HG; Géry; HG), <i>Hoitarriezo</i> (Momoitio, Bizkaia, x. mendean!)

#### 4. irudia

Aferesirik gabeko eta aferesidun PI akitanien bikoteak


Hartara, Momoitioko nekropoliko epigrafean ageri den beste PIa ere arazorik gabe txerta daiteke GIko epigrafia akitanien martxan diren prozesuetan. Izan ere, *Hotar-* PIaren eraketa zuzenean eta ia «denbora errealean» beha daiteke: *Bihox-* + *-tar* uztarketa Akitania convenoan gauzatu zen (ikus 3. irudia), eta *Bihotar-* > *Hotar-* aferesi adierazgarria geografikoki zein kronologikoki kartografia dezakegu, bi pausoak lekukotuta baitaude: *Convenaen* gauzatu ziren, ziur aski I.-III. mendeetan.

Laburbilduz, GEAn Bizkaiaren bihotzean azaleratzen diren bi PIok, akitanieran —eta bakarrik akitanieran— lekukoturiko prozesuen *outputak* ditugu. Goi In-

perioko Akitanian sortu, eratu eta silabagabetu ziren. Ez da kontu makala, Bizkaian euskal elementuak —hasperena eta *-tar* atzizkia— erakusten dituzten lehen lekukoe-tako bati buruz ari garelako.<sup>29</sup> Esan genezake, beraz, Momoiotioko idazkuna EBZaren jatorri akitaniarraren eta euskararen Antzinate Berankorreko eta GEAKo zabaltzearen «pistola ketsua» dela.

## 5. Amaitzeko. Zergatik biziraun zuen euskarak?

Aurreko atalean argudiatuaren bidez zera iradoki nahi izan dut: *rusticani* erromatar aparatoaren tropa fidelak ziren, baina ez dute zertan betidanik bertakoak izan. Izan ere, haiei esleituriko *stock* antroponimikoa ondo bideratuta badago, haien Plek —hots, haien DNA onomastikoak— LCko aldirietara begira jartzen gaituzte. Handik hartu ahal izan zituzten erromatarrek eta Nafarroako pasagune piriniotarretan ezarri, nolabaiteko migrazio itundu baten bidez. Zehazki nondik, zergatik, noiz, nola (aldi batean?, arian-arian?), ezin hemen sakondu. *Ante quema* ezinbestez 409. urtea denez, urkila zabala jarriko diot igarotzeari: 300-409.



2. mapa

Proposaturiko euskararen zabaltzea

<sup>29</sup> Bigarrena, editoreek ix.-x. mendeetan kokatzen duten Abadiñoako *Lehoari* aintzat hartuz gero (ikus Azkarate & García Camino 1996: § 20).



Hala balitz, EBZa jatorriz gizon nekazari batzuek hitz egindako akitaniera convenoa litzateke, eta akitanieraren mendebalderainoko zabaltzea ez litzateke «gertaera bakarreko» prozesua (zenbait ikertzailek proposatu legez), *longue durée* motakoa baizik. 2. mapan islatzen dut gutxi gorabeherako irudikapena.

Nafarroan ez bezala, *Convenaen* II.-III. mendeetako epigrafiak paleoeuskaldunen masa trinkoa islatzen du, eta logikaren barnean sartzen da hango bailara askok IV. mendera arte euskaldun iraun zutela pentsatzea. Ohar bedi proposatu den azalbi-deak ez diola aurre egin behar euskara ahulen edo sumaezina zen lurraldeetan —eta haietan soilik— latindartzetik bizirik atera zelako paradoxari. Espejismoaren argudiaketak (euskara gainordezkaturata dago *Convenaen* ohitura epigrafiko eskergagatik) zenbait elementu ditu kontra: euskara historikoarekiko antzekotasun gehiegi daude, kopurua ez ezik PI paleoeuskaldunen proportzioa ere beste inon baino altuagoa da *Convenaen*... Esmonde Cleary arkeologo ingelesak gako bat eman du, paleoeuskara eta *Convenaeko* ohitura epigrafiko ezohikoaren arteko erlazioa ulertzen lagun liezagukeena:

Over and above their particular avocations as offerings to the gods or commemorations of the dead, these objects show without any doubt the way in which marble became central to the self-definition and identity of the Convenae. One could belong to the Ausci, Bigerri, Consoranni, or Tarbelli without necessarily making much use of marble, but to belong to the Convenae was to belong to a people for whom marble was a part of their being. Yet this was not always so; it seems to be a development of the Roman period, probably from the later first century A.D. on, and deserves more consideration, for it would seem to be an instance of how a people can construct an identity for themselves. (Esmonde Cleary 2008: 113)

Hiztunen kopuru handiaz gain (epe luzean hau ez zen baldintza nahikoa izango), baliteke hor egotea euskara IV. mendera arte *Convenaen* eremuan —eta hartan bakarrik— biziraunarazi zuen zio boteretsua, alegia beste inon ez zegoen faktorea. Haitzurdinaren erabilera —gehi beronek zekarren ohiz kanpoko usadio epigrafikoa— eta hizkuntza berezkoari eustea txanpon berberaren bi aldeak lirateke: identitate convenoaren adierazpena. Convenoak harro zeuden beren izaeraz, eta izaera honen osagai bat hizkuntza zen. Terminologia estrukturalista baliatuz, esan genezake paleoeuskara identitate horren ezaugarri bigarrenkari bat zela, *rusticianien* exodoaren garaitik aurrera primario bihurtu zena (eta hortik *\*enos-kara* endo-etnonimoa, EBZean sortua). Harrigarria iruditu dakigukeen arren, K.o. I. mendean hasi eta IV.-V. mendera arte luzatu zen ziklo honek erromanizazioan izan bide zuen abiapuntu etnogenetikoa, zehazkiago erromatarrek egin zuten Saint-Béat-eko haitzurdin-harrobien ustiapen jorrian.

Hala ere, hau euskararen biziraupenaren lehen parte baina ez da, beste ezer ezohikorik gertatu ez balitz beranduenik V. menderako desagertuko baitzen (hauxe izan zen, hain zuzen, tokiko akitanieraren asturua). Akitaniera convenoak bizirik iraun zuen ustekabeko adarkadura edo *spin-off* bat izan zuelako, Antzinate Berankorrek eta GEAKo estropezuei aurre egiteko elementu egokiak zeuzkana: kemena eta dinamismoa. Azken finean, defentsarik onena eraso on bat da. Garaiko Europako beste *gens effera* batzuek bezala (bretoiek Armorican, lonbardiarrak Italian, alamanek Helvezian edota eslaviarrek Balkanetan), EBZaren hiztunek ere Inperioaren kolapsoa profitatu zuten «Erromania hondatzeko» eta beren eremua zabaltzeko. Soilik estatiko

geratu zirenean, XI. mendean (Iruñeko Erresumaren goreneko unean), hasi zen euskararen atzerakako zikloa. Laburbilduz, euskararen biziraupena hobeto ulertzen da garai berean latindar lurraldeko beste hizkuntza batzuei gertaturikoarekiko sinergia baten barnean, «misterio» edo gertakari isolatu gisa baino (haren filiazio singulararren auzia albo batera utzita).

EBZaren zabaltzea eta haustura, beraz, IV. mendetik XI.era doan ziklo dinamiko eta zabaltzailean kokatu behar ditugu. Hortik aurrera, atzerakako zikloan sortu zen egoera estatikoagoan, denborak etengabeko zatiketa dialektala eragin zuen, harik eta Bonaparteren mapa eman arte.

## Erreferentziak

- Abaitua, Joseba & Miguel Unzueta. 2011. Ponderación bibliográfica en historiografía lingüística. El caso de la vasconización tardía. *Oihenart* 26. 553-576.
- Abaitua, Joseba, Mikel Martínez Areta & Emiliana Ramos. 2022. Del euskera en la Tardoantigüedad. Expansión a occidente y dialectalización. *Palaeohispanica* 22. 47-84. <https://doi.org/10.36707/palaeohispanica.v22i0.437>.
- Azkarate, Agustín & Iñaki García Camino. 1996. *Euskal Herriko Erdi Aroko hilarri eta inskripzioak (VI.-XI. mendeak)*. Bilbo: UPV/EHU.
- Cantón Serrano, Esther. 2009. Onomástica y organización social de los vascones. In Javier Andreu (arg.), *Los vascones de las fuentes antiguas. En torno a una etnia de la Antigüedad peninsular*, 423-455. Barcelona: Universitat de Barcelona.
- Esmonde Cleary, Simon. 2008. *Rome in the Pyrenees. Lugdunum and the Convenae from the first century B.C. to the seventh century A.D.* Londres & New York: Routledge.
- Forster, Peter & Colin Renfrew. 2011. Mother Tongue and Y Chromosomes. *Science* 333 (6048). 1390-1391.
- Gorrochategui, Joaquín. 1984. *Estudio sobre la onomástica indígena de Aquitania*. Bilbo: UPV/EHU.
- Grosclaude, Michel & Jean-François Le Nail. 2000. *Dictionnaire toponymique des communes des Hautes-Pyrénées*. Tarbes: Conseil Général des Hautes-Pyrénées.
- Hualde, José Ignacio. 2015. Dialektologia dinamikoa. *Lapurdum, Numéro Spécial* 3 (Irantzu Epelde [arg.], *Euskal hizkera eta dialektoak gaur egun*), 125-153.
- Jordán, Ángel A., Javier Andreu & Juan José Bienes. 2010. Epigrafía romana de Sofuentes (Zaragoza, España). *Epigraphica* 72. 191-246.
- Lakarra, Joseba A. 2011. Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz: Euskara Batu Zaharra berreraiki beharraz eta haren banaketaren ikerketaz. In Irantzu Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina (ASJUren Gehigarriak 69)*, 155-241. Bilbo: UPV/EHU.
- Mañaricúa, Andrés E. 2013 [1957]. San Agustín de Echebarría (Elorrio). In Ander Manterola, Jon Elorriaga, Karmele Berriozabal & Segundo Oar-Arteta (arg.), *Estudios acerca de la cristianización del País Vasco*, 109-127. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- Martínez Areta, Mikel. 2022. Hiru antroponimo akitaniar berri: *Jaun, Samur, Estenso*. Gogoetak Akitaniako toponimo deantroponimikoez. In Irene Barbería & Alexander Iribar (arg.), *Papers on Basque linguistics in honour of Jon Franco*, 45-66. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Mitxelena, Koldo. 1954. De onomástica aquitana. *Pirineos* 10. 409-458 (Berrarg. OC 5, 197-243).

- Mitxelena, Koldo. 1981. Lengua común y dialectos vascos. *ASJU* 15. 291-313. (Berrarg. *OC* 7, 517-543).
- Mitxelena, Koldo. 2011. *Obras completas (ASJUren Gehigarriak 54-68)*, 15 lib. Donostia & Gasteiz: «Julio Urkixo» Euskal Filologi Mintegia, GFA & UPV/EHU (Joseba A. Lakarra & Iñigo Ruiz Arzalluzen argit.).
- Pozo, Mikel. 2022. *Vasconia tardoantigua. Entre la evolución sociopolítica y la construcción intelectual (400-711)*. Madril: Consejo Superior de Investigaciones Científicas.
- Ruiz Asencio, José M.<sup>a</sup>, Irene Ruiz Albi & Mauricio Herrero Jiménez. 2010. *Los becerros gótico y galicano de Valpuesta. Volumen I. Estudio, Edición e Índices*. Madril & Burgos: Real Academia Española & Fundación Instituto Castellano y Leonés de la Lengua.
- Unzu, Mercedes & Pablo Ozcáriz. 2009. Grafitos nominales de la plaza del Castillo de Pamplona. In Javier Andreu (arg.). *Los vascones de las fuentes antiguas. En torno a una etnia de la Antigüedad peninsular*, 499-526. Bartzelona: Universitat de Barcelona.

